



asesores de gerentes emprendedores

**IGNACIO M<sup>a</sup> UZCUDUN GURUCEAGA  
DNI n° 15.869.625-Q**

**"VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A."  
sozietateko akziodun bakarrari**

**Al accionista único de:  
"VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A."**


**2016 EKITALDIKO URTEKO KONTUEN AUDITORETZA  
INDEPENDENTEAREN TXOSTENA**

**INFORME DE AUDITORIA INDEPENDIENTE  
DE CUENTAS ANUALES DEL EJERCICIO 2016**

*Nº de Protocolo: 41/17*

*Nº de Protocolo: IU-08//17/A*

Donostia, 2017ko martxoaren 28  
San Sebastián, a 28 de marzo de 2017



URTEKO KONTUEN AUDITORETZA  
INDEPENDENTEAREN TXOSTENA

INFORME DE AUDITORIA INDEPENDIENTE DE  
CUENTAS ANUALES

«VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A.» sozietateko akziodun bakarrari, zuzendari-kudeatzailearen enkarguz:

Auditatu ditugu «**VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A.**»ren urteko kontuak, 2016ko abenduaren 31ko balantze laburtuak eta egun horretan amaitutako urteko ekitaldiko galdurabazien kontu laburtuak, ondare garbiaren aldaketen egoera orri laburtua eta memoria laburrak osatuak, eta idazki honi erantsiak.

**Administratzaileen erantzukizuna urteko kontuei buruz**

Administratzaileen ardura da erantsitako urteko kontuak formulatzea, eta kontu horietan islatzea «**VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A.**»ren ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi leiala, Spainian finaniza-informazioaren arloan entitateari aplikatu behar zaion arau-esparruaren arabera (erantsitako memoriako 2.a. Oharrean identifikatua), eta urteko kontuak iruzurraren edo erroreen ondoriozko akats materialik gabe egiteko beharrezkotzat jotzen den barne-kontrolaren arabera.

AI Accionista Único de «**VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A.**» por encargo de la gerencia

Hemos auditado las cuentas anuales de «**VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A.**» que comprenden el balance abreviado al 31 de diciembre de 2016, la cuenta de pérdidas y ganancias abreviada, el estado abreviado de cambios en el patrimonio neto y la memoria abreviada correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

**Responsabilidad de los administradores en relación con las cuentas anuales**

Los administradores son responsables de formular las cuentas anuales adjuntas, de forma que expresen la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y de los resultados de «**VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A.**» de conformidad con el marco normativo de información financiera aplicable a la entidad en España, que se identifica en la nota 2.a de la memoria adjunta, y del control interno que consideren necesario para permitir la preparación de cuentas anuales libres de incorrección material, debida a fraude o error.



## Auditorearen erantzukizuna

Gure ardura da erantsitako urteko kontuei buruzko iritzia ematea, gure auditorian oinarrituta. Spainian kontuen auditoria egiteko indarrean dagoen erregulazio-araudiaren arabera egin dugu auditoria. Araudi horrek agintzen du etikako betekizunak betetzea, eta auditoria planifikatzea eta gauzatzea, arrazoizko segurtasunez baietzatu ahal izateko urteko kontuetan ez dagoela akats materialik.

Auditoria egitean, urteko kontuetan ematen diren zenbatekoei eta informazioari buruzko auditoriako ebidentzia lortzeko prozedurak aplikatu behar dira. Procedura horiek auditorearen juzguaren araberako hautatuko dira, barne hartuz, urteko kontuetan, dela iruzurrarengatik edo dela erroreengatik, akats materialak egoteko arriskuen balorazioa. Arrisku-balorazio horiek egitean, auditoreak kontuan izaten du entitateak urteko kontuak formulatzeko ezarritako barne-kontrola, auditoriako procedura egokiak diseinatu ahal izateko zirkunstantzien arabera, baina ez entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko. Auditorian sartzen dira, halaber, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren ebaluazioa eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, urteko kontuak multzoan hartuta aurkezteko moduaren ebaluazioarekin batera.

Uste dugu, lortu dugun auditoriako ebidentziak behar adinako oinarri egokia eskaintzen duela gure auditore-iritzia emateko.

## Responsabilidad del auditor

Nuestra responsabilidad es expresar una opinión sobre las cuentas anuales adjuntas basada en nuestra auditoría. Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la auditoría de cuentas vigente en España. Dicha normativa exige que cumplamos los requerimientos de ética, así como que planifiquemos y ejecutemos la auditoría con el fin de obtener una seguridad razonable de que las cuentas anuales están libres de incorrecciones materiales.

Una auditoría requiere la aplicación de procedimientos para obtener evidencia de auditoría sobre los importes y la información revelada en las cuentas anuales. Los procedimientos seleccionados dependen del juicio del auditor, incluida la valoración de los riesgos de incorrección material en las cuentas anuales, debida a fraude o error. Al efectuar dichas valoraciones del riesgo, el auditor tiene en cuenta el control interno relevante para la formulación por parte de la entidad de las cuentas anuales, con el fin de diseñar los procedimientos de auditoría que sean adecuados en función de las circunstancias, y no con la finalidad de expresar una opinión sobre la eficacia del control interno de la entidad. Una auditoría también incluye la evaluación de la adecuación de las políticas contables aplicadas y de la razonabilidad de las estimaciones contables realizadas por la dirección, así como la evaluación de la presentación de las cuentas anuales tomadas en su conjunto.

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión de auditoría.



**Iritzia**

Gure iritziz, erantsitako urteko kontuek "VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A" 2016ko abenduaren 31n zuen ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi leiala erakusten dute, alderdi garrantzitsu guztietan, eta gauza bera esan daiteke egun horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei buruz ere, finantza-informazioaren arloan aplikatzeko zaion arau-esparruaren arabera eta, bereziki, esparru horretan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

**Opinión**

En nuestra opinión, las cuentas anuales adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la sociedad "VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A" a 31 de diciembre de 2016, así como de sus resultados correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

Donostia, 2017ko martxoaren 28


San Sebastián, a 28 de marzo de 2017

 AGEM CONSULTORES Y AUDITORES, S.L.  
 (ROAC-S2107)

 Parque Empresarial Zutazu  
 Edif. Zurriola, Planta Baja -8  
 20018 Donostia – San Sebastián

 Kontu-Ikuskari Bazkidea/Socio auditor  
 Asier Ilzarbe Vergara

 IGNACIO M<sup>a</sup> UZCUDUN GURUCEAGA  
 (ROAC-05762)

 Avda . Libertad, 10 -3°C  
 20004 Donostia – San Sebastián


AÑO 2017 N° 03/17/01958  
 SELLO CORPORATIVO: 96,00 EUR

Información auditada conforme a la normativa de auditoría de cuentas española o internacional



AÑO 2017 N° 03/17/02605  
 SELLO CORPORATIVO: 96,00 EUR

Información auditada conforme a la normativa de auditoría de cuentas española o internacional





**VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A.**

**2016ko abenduaren 31an amaitutako  
ekitaldiaren Urteko Kontu Laburtuak**



<b>AURKIBIDEA</b>	<b>Orria</b>
Balantze laburtua	1
Galera eta irabazien kontu laburtuak	2
Ondare garbiaren aldaketen egoera laburtua	3
 Memoria	
1 Sozietatearen jarduera	4
2 Urteko kontu laburtuak aurkezteko oinarriak	5
3 Emailzen aplikazioa	7
4 Erregistrozko eta baloratzeko arauak	8
5 Ibilgetu materiala	17
6 Ibilgetu ukiezina	18
7 Errentamendu operatiboak	18
8 Epe laburreko aktibo finantzarioak	19
9 Epe laburreko pasibo finantzarioak	20
10 Fondo propioak	20
11 Diru laguntzak, dohaintzak eta legatuak	21
12 Egoera fiskala	22
13 Hornidurak eta kontingentziak	23
14 Sarrerak eta gastuak	23
15 Loturadun alderdiekiko eragiketak	24
16 Ingurumenari buruzko informazioa	28
17 Hornitzaillei egindako ordainketen batez besteko epearri buruzko informazioa	28
18 Negutegi efektuko gasen isurketa eskubideei buruzko informazioa	28



## VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A.

### 2016ko ABENDUAREN 31ko BALANTZE LABURTUA

AKTIBOA	OHARRA	2016/12/31	2015/12/31
A) AKTIBO EZ KORRONTREA		22.768.680,46	23.456.824,32
II. Ibilgetu materiala	5	22.760.947,22	23.456.824,32
V. Finantza-Inbertsioak epe luzera		7.733,24	-
B) AKTIBO KORRONTREA		2.243.784,44	2.064.971,43
III. Zordun komertzialak eta kobratzeko beste kontu batzuk		1.495.370,37	1.448.653,98
1. Salmenta eta zerbitzu prestazioengako bezeroak	8	90.180,69	204.696,23
3. Beste zenbait zordun	8,11,12	1.405.189,68	1.243.957,75
IV. Epe laburreko zorrak erakunde elkartuekin	8, 15	460.206,35	417.878,98
V. Epe laburreko finantza-inbertsioak		-	3.000,00
VI. Epe laburreko aldizkapenak		-	2.250,00
VII. Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido balioakide	8	288.207,72	193.188,47
AKTIBOA GUZTIRA (A + B)		25.012.464,90	25.521.795,75

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	OHARRA	2016/12/31	2015/12/31
A) ONDARE GARBIA		22.781.245,01	23.468.126,05
A-1) Fondo propleak			
I. Kapitala	10	89.669,00	89.669,00
1. Eskrituran jasotako kapitala		89.669,00	89.669,00
3. Bazkideen beste zenbaltzak		89.669,00	89.669,00
VI. Bazkideen beste zenbaltzak	3	4.604.231,61	3.959.229,09
VII. Ekitaldiko emaitza	3	(4.604.231,61)	(3.959.229,09)
A-3) Diru laguntzak, dohaintzak eta legatuak		22.691.576,01	23.378.457,05
B) PASIBOA EZ-KORRONTREA		0,00	126.457,31
I. Epe luzeko horridurak	13	0,00	126.457,31
C) PASIBOA KORRONTREA		2.231.219,89	1.927.212,39
III. Epe laburreko zorrak	9, 13	160.802,73	7.384,50
3. Epe laburreko beste zorbatzuk		160.802,73	7.384,50
IV. Epe laburreko zorrak erakunde elkartuekin	9,15	-	114,77
V. Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk	9,15	1.853.856,64	1.827.434,37
2. Beste zenbait hartzekodun		1.853.856,64	1.827.434,37
VI. Epe laburreko aldizkapenak		216.560,52	92.278,75
PASIBOA ETA ONDARE GARBIA, GUZTIRA (A + B + C)		25.012.464,90	25.521.795,75

Donostian, 2017ko martxoaren 27an

Memoria laburtu honetan 1 eta 18 artean zenbaturik dauden oharrak 2016 ekitaldiko balantze laburtuaren parte dira.





**VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A.**

**2016ko ABENDUAREN 31an AMAITUTAKO EKITALDIARI DAGOKION GALERA ETA IRABAZIEN  
KONTU LABURTUAK**

Eurotan

OHARRA	(Zor) Harzekoa	
	2016/12/31	2015/12/31
1. Negozio-zifren zenbateko garbia	3.201.661,41	2.996.287,57
5. Ustiapeneko beste zenbait sarrera	14	924.285,95
7. Ustiapeneko beste zenbait gastu	14	(8.720.546,77)
8. Ibilgetuaren amortizazioa	5,6	(842.048,00)
9. Ibilgetu ez finantzarioen diru laguntzen egozpena	11	831.595,46
13. Bestelako emaitzak		0,00
<b>A) USTIAPENEKO EMAITZA (1+5+7+8+9+13)</b>	<b>(4.605.051,95)</b>	<b>(3.959.457,65)</b>
14. Sarrera finantzarioak	1.056,41	1.565,36
b) Beste zenbait sarrera finanzario		1.056,41
15. Gastu finantzarioak		(1,97)
17. Kanbio differentziak		(234,10)
<b>B) EMAITZA FINANTZARIOA (14+15+17)</b>	<b>820,34</b>	<b>228,56</b>
<b>C) ZERGEN AURREKO EMAITZA (A + B)</b>	<b>(4.604.231,61)</b>	<b>(3.959.229,09)</b>
<b>D) ERAGIKETA JARRAITUETAKO EKITALDIKO EMAITZA (C)</b>	<b>(4.604.231,61)</b>	<b>(3.959.229,09)</b>

Donostian, 2017ko martxoaren 27an



**VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A.**

**2016ko ABENDUAREN 31an AMAITUTAKO EKITALDIARI DAGOKION ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN EGOERA  
LABURTUA**

---

A) 2016ko ABENDUAREN 31n AMAITUTAKO EKITALDIEI DAGOKIEN AITORTUTAKO DIRU SARRERA ETA GASTUEN EGOERA

	OHARRA	2016	2015	Eurotan
A) Galera eta Irabaziaren kontuaren emalza	3	(4.604.231,61)	(3.959.229,09)	
B) Ondare Garbiari zuzenean egotitako diru sarrera eta gastuak	144.714,42	170.323,62		
III. Jasotako diru laguntzak, dohaintzak eta legatuak	11	144.714,42	170.323,62	
C) Transferentziak galera eta Irabaziaren kontura		(831.595,46)	(816.671,25)	
VIII. Jasotako diru laguntzak, dohaintzak eta legatuak	11	(831.595,46)	(816.671,25)	
<b>AITORTUTAKO SARRERA ETA GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>(5.291.112,65)</b>	<b>(4.605.578,73)</b>		

B) 2016ko ABENDUAREN 31n AMAITUTAKO EKITALDIARI DAGOKION ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN EGOERA OSOA

	Kapitala	Bazkideen beste zenbait ekarpen	Ekitaldiko emalza	Diru laguntzak, dohaintzak eta legatuak	GUZTIRA	Eurotan
A) 2014 URT EKO AMAIERAKO SALDOA	89.669,00	4.268.461,30	(4.268.461,30)	24.024.804,69	24.114.473,69	
B) 2015 URT EKO HASIERAKO SALDO EGOKITUA	89.669,00	4.268.461,30	(4.268.461,30)	24.024.804,69	24.114.473,69	
I. Abortutako sarrera eta gastuak guzfra	-	-	(3.959.229,09)	(646.347,64)	(4.605.576,73)	
II. Eragiketak bazkide edo jabeekin	-	3.959.229,09	-	-	3.959.229,09	
III. Ondare garbiaren beste gorabehera batzuk	-	(4.268.461,30)	4.268.461,30	-	-	
C) 2015 URT EKO AMAIERAKO SALDOA	89.669,00	3.959.229,09	(3.959.229,09)	23.378.457,05	23.468.126,05	
D) 2016 URT EKO HASIERAKO SALDO EGOKITUA	89.669,00	3.959.229,09	(3.959.229,09)	23.378.457,05	23.468.126,05	
I. Abortutako sarrera eta gastuak guzfra	-	-	(4.604.231,61)	(688.881,04)	(5.291.112,65)	
II. Eragiketak bazkide edo jabeekin	-	4.604.231,61	-	-	4.604.231,61	
III. Ondare garbiaren beste gorabehera batzuk	-	(3.959.229,09)	3.959.229,09	-	-	
E) 2016 URT EKO AMAIERAKO SALDOA	89.669,00	4.604.231,61	(4.604.231,61)	22.691.576,01	22.781.245,01	

Donostian, 2017ko martxoaren 27an

Memoria laburtu honetan 1 eta 18 artean zenbaturik dauden oharrak 2016 ekitaldiko ondare garbiaren aldaketen egoera laburtuaren parte dira.





**VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A.**

**2016KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO**

**EKITALDIAREN MEMORIA LABURTUA**

**(1) Sozietatearen jarduera**

"Victoria Eugenia Antzokia, S.A." sozietatea 2007ko abenduaren 31n eratu zen eta bere helbide soziala Erregina Erregeordearen kaleko 8. zenbakian du gaur egun.

Bere jarduketaren funtsa arte eszenikoekin, musikarekin, dantzarekin eta ikusentzunezkoekin lotutako kultur programa eta jarduerak kudeatzea da, haien antolakuntza, babes eta zabalkundea, bai eta esparru horretan honako jarduera hauek gauzatzea ere:

- a) Ekimen publiko eta pribatuak sustatzea.
- b) Nazio-mailan eta nazioartean beste hainbat entitate publiko eta pribaturekin elkarlanean jardutea.
- c) Aholkularitza eskaintza eta azterianak egitea.
- d) Jarduerokin lotura duten artista eta teknikarien prestakuntza.

Victoria Eugenia Antzokiaren kudeaketari dagokionez, sozietateak, bereziki, era guztietako zerbitzu-estateak eta jarduerak izango ditu xede, arlo hauek hartzen dituztenak:

- a) Ikuskizunen eta ikus-entzunezko produktuen produkzio eta koprodukzioa.
- b) Antzerki, musika, dantza eta abarreko ikuskizunen antolakuntza (ekoizpen propiokoak nahiz kanpo ekoizpenekoak), bai eta horien zabalkunde eta banaketa ere.
- c) Ikus-entzuteko eta zinemako produkzioen, eta produkzio fonografikoen antolakuntza, bai eta horien zabalkunde eta banaketa ere.
- d) Kontabilitate-irizpideen aldaketak.
- e) Askotariko arte eta kultur agerkariak antolatzea.





- f) Gertakari, kongresu, konbentzio eta abarren antolakuntza.
- g) Areto eta instalakuntzen alokairua.
- h) Arte eszeniko, musika, dantza eta ikus-entzunezkoarekin erlazionaturiko produktuen merkaturatzea.

Sozietaek 2008ko ekainaren 17an hasten du ondare kulturalaren inguruko programa eta ekintza kulturalen kudeaketa, bai eta hauen antolakuntza, lagunza eta hedapena ere. Ordurarte Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoak garatzen zituen jarduera horiek.

Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoak %100ean parte hartzen du Victoria Eugenia Antzokia sozietaean. Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa, duen tamainarengatik, ez dago urteko kontu bateratuak aurkezteria behartuta.

Urteko kontu laburtu hauek eurotan adierazita daude.

## (2) Urteko kontuak aurkezteko oinarriak

### (a) Irudi fidela eta dagokion finantza informazioa

Urteko kontu laburtuak sozietaaren kontabilitateko erregistroetatik atera dira, eta Kontabilitate Plan Orokorrak onartzten duen azaroaren 16ko 1514/2007 E.D.aren bidez egindako eta 1159/2010 eta 602/2016 E.D.ak ezarritako aldaketen arabera aurkezten dira, ondarearen, finantza egoeraren eta sozietaaren emaitzaren irudi fidela azal dezaten. Kontu laburtu hauek Sozietaaren kontabilitate liburu eta erregistroetan oinarritu dira.

2015 ekitaldiko urteko kontu laburtuak 2016ko apirilaren 19an onartu ziren.

Nahiz eta 2016 ekitaldiko urteko kontu laburtuak onarpenaren zain egon, sozietaaren administratzaillek ez dute aldaketa garrantzitsurik espero hauen onarpenaren ondorioz.



(b) Kontabilitate irizpideak

Urteko kontu laburtu hauen garapenean erabilitako kontabilitate arau eta irizpideak memoria honen 4. oharrean laburbiltzen dira. Ondarean, finantza egoeran eta emaitzan eragina duten nahitaezko kontabilitate irizpide guztiak erabili dira. Ez da nahitaezkoa ez den kontabilitate irizpiderik erabili.

(c) Informazioaren konparaketa

Ez dago urteko kontuak aurreko ekitaldiarekin alderatzea eragozten duen arrazoirik.

(d) Informazioaren erantzukizuna eta egindako estimazioak

Urteko kontu laburtu hauetan aurkeztutako informazioa sozietatearen administratzaleen erantzukizuna da.

2016ko abenduaren 31n bukatutako urteko kontu laburtuetan, aktibo, pasibo, galera, irabazi eta obligazioak balioztatzeko sozietatearen administratzaleek egindako estimazioak erabili dira noiz behinka. Funtsean, estimazio hauek ondorengo atalei dagozkie:

- Zenbait aktiboren hondatze galerak.
- Ibilgetu material eta ukiezinaren bitzitzera erabilgarria.
- Gastu eta arriskuetarako hornidurak.

Estimazio hauek 2016 ekitaldiko ibxieran izandako informazio soberenean oinarrituta egin badira ere, litekeena da etorkizunean gertatu daitezkeen zenbait gertaerek hurrengo ekitaldietan hauetako aldareztea. Aldaketa hauetako gertatuz gero era prospektiboan egingo lirateke.

Urteko Kontu hauetako funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioaren arabera aurkeztu dira. Sozietatearen berezitasunen arabera, honen jarraipena bazkide bakarrak egiten dituen ekarpenetara baldintzatuta dago.



(e) Hainbat partidetan adierazitako elementuak

Ez dago balantzko bi partida edo gehiagotan adierazita dagoen ondare elementurik.

(f) Kontabilitate irizpideen aldaketak

Urteko Kontu laburtu hauei dagokien ekitaldian zehar, ez da aurreko ekitaldian aplikatutako kontabilitate irizpideekiko aldaketarik izan.

(g) Akatsen zuzenketa

Oinarrizko edozein akatsen zuzenketaren eragina hurrengo eran erregistratzen da: ekitaldiaren hasierako eragin metatua erreserbetan doitzen da, ekitaldian bertan eragina duten mugimenduak emaitzetan doitzen diren bitartean. Egoera hauetan ekitaldiko finantza informazioa eta aurreko ekitaldikoa era konparagarrian aurkezten da.

2016 eta 2015 ekitaldietan zehar, aurreko ekitaldietan sortutako akatsen ondorioz, urteko kontu laburtuetan zuzenketarik egitea ez da beharrezkoa izan.

**(3) Emaitzen aplikazioa**

Administratzaileek akziodunen batzar nagusian emaitzaren banaketa egiteko hurrengo proposamena aurkeztuko dute:

<b>Banaketa oinarria:</b>	<b>2016</b>	<b>2015</b>
Ekitaldiko emaitza, galera eta irabaziaren kontuaren arabera	(4.604.231,61)	(3.959.229,09)
Guztira	(4.604.231,61)	(3.959.229,09)
<b>Banaketa:</b>		
Aurreko ekitaldiko emaitza negatiboak	(4.604.231,61)	(3.959.229,09)
Guztira	(4.604.231,61)	(3.959.229,09)

Era berean, Administratzaileek 2016 ekitaldian egindako ekarpenak ekitaldiko emaitza negatiboak konpentsatzeko erabiltea proposatuko dute.

2015 ekitaldiko emaitza bere osotasunean aurreko ekitaldiko emaitza negatiboetara banatu zen, ondoren, 2015 ekitaldian zehar bazkideak egindako ekarpenekin konpentsatu zena.



#### (4) Erregistratzeko eta baloratzeko arauak

2016ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiaren urteko kontu laburtuak prestatzeko, entitateak erabili dituen balorazio arau nagusiak honako hauek dira:

##### a) Ibilgetu ukiezina

Sozietateak erositako ibilgetu ukiezinak eskuratze prezioan edo produkzio kostuan baloratu dira. Negozio konbinazio bitartez eskuratutako ibilgetu ukiezinaren kostua bere eskuratze momentuko arrazoizko balioa izango da.

Baloratzeko orduan, beren kostuari dagokion amortizazio metatua eta/edo hondatzeagatik izan duten galera kentzen zaie, dagokionaren arabera.

Ibilgetu ukiezinak aurreikusten zaizkien bizitza erabilgarriaren eta euren hondar balioaren arabera sistematikoki amortizatzen dira. Erabilitako metodo eta amortizazio epeak, urtero berrikusten dira, eta hala badagokio, era prospektiboan egokitzen dira. Urte amaieran gutxienez, hondatze zantzurik dagoen aztertzen da, eta izatez gero, kopuru berreskuragarriak estimatzen dira, balorazioagatiko doikuntha egokiak eginez.

Sozietateak hondatzearen ondorioz aktibo hauen balioan sortutako edozein galera kontabilitatean aitortzen du, galera eta irabazien kontu laburtuaren "Hondatze galera garbiak" epigrafea erabiliz. Aurtengo ekitaldian ez dira ibilgetu ukiezinetatik eratorritako "Hondatze galera garbiak" aitortu.

Sozietateak erabilgarria izateko, ustiatzeko edo salmentan jartzeko urte bat baino gehiago behar duen ibilgetu ukaezinaren kostuan, eskurapenari, eraikuntzari edo ekoizpenari dagokion finantzaketa zehatza edo orokorrari lotutako gastu finantzarioak gehitzen ditu.



Aplikazio informatikoak-

Eskuratze prezioan edo ekoizpen kostuan baloratzen dira web orrien garapen gastuak gehituz. Elementu hauen biziota erabilgarria 5 urtekoa dela estimatzen da.

Biziota erabilgarria luzatzean eraginik ez duten konponketak eta mantentze kostuak, sortzen diren ekitaldiko irabazi eta galeren kontu laburtuan sartuko dira.

b) Ibilgetu materiala

Ibilgetu materiala eskuratze prezioan baloratuta dago, amortizazio metatua eta hondatze galerak kenduta. Ibilgetu bakotza eskuratzean ordaindutako prezioaz gain, zuzenean ibilgetuaren eskuratzean edo ekoizpenean beharrezkoak diren eta urte bete baino epe luzeagoan sortzen diren gastu finantzarioak ere gehituko dira ibilgetuaren kostuan. 2016 eta 2015 ekitaldietan zehar ez da kontzeptu honengatik zenbatekorik gehitu.

Soziitate honen eraketan Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoak ekarri zuen ibilgetu materiala, erakunde horretan zuen kontabilitate balio garbiaren zenbateko berdinean erregistratu zen.

Beste alde batetik, Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoko lehendakariaren ebazpen batez gauzatutako jabari publikoko ondasunen emakidaren bidez jasotako ibilgetua erakunde horretan ondasun higigarrietarako jasota zegoen kontabilitateko balio garbiaz erregistratu zen, emakidaren gai diren ondasun higiezinei dagokienez aditu independente batek egindako tasazio txostenaren arabera zenbatetsitako arrazolizko balioaren arabera bezalaxe.

Emakida administratibo bidez lagatako elementu horien gainean Soziitateak egindako inbertsioak ibilgetu gisa erregistratzen dira, inbertsio horiek ezin direnean elementu horietatik bereizi eta elementu horien ahalmena edo produktibilitatea areagotzen edo horien biziota baliagarria luzatzen badute.

Ondasun horien amortizazioa duten biziota baliagarriaren arabera egiten da, edo lagapen-kontratuaren iraupenaren arabera, azken hau hora baino laburragoa bada.



Ibilgetu osoen ordezkaren edo berritzeetan, produktibitatea edo ahalmen ekonomikoa handitzen edo ibilgetuaren bizitza erabilgarria luzatzen duten handitze, modernizazio edo hobekuntza kostuak ibilgetuaren balio gehigarriak izango dira.

Ibilgetua kontserbatzeko, mantentzeko eta konpontzeko sortzen diren aldizkako gastuak, urteko galeren eta irabazien kontura egozten dira, sorratzpen irizpidea jarraituz.

Amortizazioa metodo lineala aplikatuz kalkulatzen da. Elementu bakoitzaren bizitza erabilgarriaren urteen ehunekoan arabera kalkulatuko da. Portzentai hauetako gutxieneko portzentai fiskaletatik gertu daude eta honako hauetakoak dira:

	URTEAK
Erakuntzak	50
Beste instalazioak	10-25
Makineria	10
Altzariak	10
Informazio prezuen ekipamenduak	6
<u>Beste ibilgetu material</u>	<u>10</u>

Ibilgetu materialeko elementuen amortizazioa funtzionamenduan jarriz bezain laster hasten da erregistratzen.

Sozietaatearen administratzaileek aktiboen kontabilitate balioak haien berreskuraren balioak baino handiagoak ez direla konsideratzen dute.

Salmenta edo erretiroaren ondorioz sortutako galera edo irabazia, salmenta prezioaren eta aktiboaren liburuan azaltzen den balioaren arteko diferentzia da eta galdu irabazi kontuan adierazten da.

#### c) Aktibo ez finantzarioen balioaren hondatze galerak

Aktiboen kontabilitate balioa berreskuragarria izan ez daitekeela suposatzen gertakari edo egoera aldaketen aurrean, aktiboen balioaren hondatze galeren azterketa egiten da. Hondatze galera, aktiboaren kontabilitate balioaren eta bere balio berreskuragarriaren arteko diferentziaren soberakina izango da. Azken hau, aktiboaren arrazoizko balioa (behin salmenta gastuak kenduta) eta erabiltze balioaren arteko handiena izango da.



Aurreko ekitaldietan aitortutako hondatze galerak aktiboaren balio berreskuragarria handitzen duen estimazio aldaketaren ondorioz aplikatzen dira. Beti ere, kontabilitate balioa galinditu gabe.

2016 eta 2015 ekitaldietan zehar, sozietateak ez du aktibo ez finantzarioen balioaren hondatze galerarik aitortu.

d) Errentamenduak

Sozietatea errentaria denean

Errentamendu operatiboetan, errentatzaileari ondasunaren jabetza eta titularitatearen ondoriozko arrisku eta mozkinen zati garrantzitsu bat egokitzen zaio.

Alokairuak sortzen dituen gastuak galdu irabazi kontuan aitortzen dira zuzenean, kontratuaren bitzia erabilgarriaren arabera. Errentatzailearengandik jasotzen den edozein pizgarri, sarrera gisa aitortzen dira galera eta irabazi kontuan alokairuaren gastuak linealki gutxituz.

Sozietatea errentatzailea denean

Errentatzaileak titularitatearen ondoriozko arriskuen eta mozkinen zati garrantzitsu bat duen errentamenduak errentamendu operatibo gisa sailkatzen dira.

Sozietateak errentamendu operatibo gisa alokatutako aktiboak balantze laburtuan adierazten dira bere izaeraren arabera. Errentamenduak sortutako sarrerak errentamendu aldian zehar linealki adierazten dira.

e) Saldo korronte eta ez korronteen arteko desberdintasunak

Erantsitako egoera balantzean, saldoak korronte eta ez korrontean banatzenten dira. Sozietateak ustiapenaren ziklo normalean saldu, kontsumitu, ordaindu edo gauzatzea espero dituen saldoak korronteak dira. Definizio hau ez dagozkiengak berriz, ez korronteak dira.

f) Maileguak eta kobratzeko partidak

Atal honek operazio komertzialengatik sortutako maileguak eta operazio ez komertzialengatik sortutako maileguak biltzen ditu.



Maileguak eta kobratzeko partidak balantzko "Zordun komertzialak eta kobratzeko beste kontu batzuk" atalean adierazten diren aktibo finantzarioak dira.

Aktibo finantzario nagusiak hasiera batean beraien arrazoizko balioan adierazten dira. Ondoren, amortizazio kostuaren arabera balioztatzen dira, interes tasa efektiboa erabiliz.

Aitzitik, urte bete baino gutxiago duten maileguak eta kontratzko interes tasa ez duten operazio komertzialengatik sortutako maileguak, hauen zenbatekoa epe laburrean kobratzea espero denean, balio nominalean balioztatzen dira, beti ere eskudiruaren joan-etorriak ez eguneratzearen ondorioa adierazgarria ez denean.

Ekitaldiaren amaieran gutxienez, balioaren hondatze galerengatiko balio zuzenketa egiten da zor diren zenbatekoak kobraztuko ez direnaren nabaritasun objektiboa dagoenean.

Sozietateak operazio komertzialentzako kredituen balioan hondatze galerak adierazten ditu honen bezeroak egoera irregularrean daudenean, ordainketa atzeratuengatik, ordainketen etetearengatik, kaudimen ezagatik, berandutzeagatik edo beste arrazoiengatik behin-betiko kobraezina izango diren zenbatekoen estimazioen arabera.

g) Hartzekodunak eta ordaindu beharreko partidak

Atal honek operazio komertzialengatik sortutako hartzekodunak eta operazio ez komertzialengatik sortutako hartzekodunak biltzen ditu.


Pasibo finantzario nagusienak hasiera batean beraien arrazoizko balioan adierazten dira. Ondoren, beraien amortizatze kostuan baloratzen dira interes tasa efektiboa erabiliz.

Aitzitik, urte bete baino gutxiago duten eta kontratzko interes tasa ez duten operazio komertzialengatik sortutako hartzekodunak, hauen zenbatekoa epe laburrean ordaintzea espero denean, balio nominalean balioztatzen dira, beti ere eskudiruaren joan-etorriak ez eguneratzearen ondorioa adierazgarria ez denean. .

h) Transakzioak atzerri monetan

Sozietatearen moneta funtzionala euroa da. Beraz, euroa ez den dibisan egindako eragiketak "atzerri moneta" atalean adieraziko dira eta eragiketen datan indarrean dagoen kanbio tasan adieraziko dira.





Egoera balantze bakoitzeko datan, atzerri monetan dauden aktibo eta pasibo monetarioak, itxiera datan indarrean dauden tasen arabera aldatzen dira. Balio historikoan neurrtuta dauden atzerri monetako partida ez monetarioek ez dute zuzenketarik jasaten kanbio differentziengatik. Arrazoizko balioan dauden partida ez monetarioak arrazoizko balioaren zehaztapen eguneko kanbio tasan balioztatzen dira.

Partida ez monetarioekiko bihurtze differentziak, hala nola, galdu irabazi kontuan aldaketak sortzen dituen arrazoizko balioan mantendutako ondare tresnak, arrazoizko balioaren galera edo irabaziaren zati bezala adierazten dira. Partida ez monetarioekiko bihurtze differentziak, hala nola, salmentarako erabilgarriak diren aktibo finantzario gisa sailkatuta dauden ondare tresnak, ondare garbian barneratzen dira.

Kitapenean edota itxiera kanbio tasan bihurtzerakoan sortutako partida monetarioen kanbio differentziak, ekitaldiko emaitzetan adierazten dira. Salmentarako erabilgarriak diren aktibo finantzario monetarioetan, transakzio dataren eta ekitaldiko itxiera dataren artean sortutako differentziak, aktibo horien amortizatze kostuaren arabera kalkulatzen dira eta ekitaldiko galera eta irabazien kontuan adierazten dira.

i) Mozkinen gaineko zerga

2016 ekitaldiko mozkinen gaineko zerga Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren inguruan kitatu da.

Ekitaldi bakoitzeko mozkinen gaineko zergaren gastua, zerga aurreko emaitzari, emaitza fiskalaren differentzia iraunkorren ondorioz sortutako handitze edo gutxitzeak aplikatuz lortzen da.

j) Hornidurak eta kontingentziak

Sozietatearen administratzaileek Urteko Kontuetan bi kontzeptu hauek bereizten dituzte:

- Zuzkidurak: iraganeko jazoeretatik eratorritako obligazioak estaltzen dituzten saldo hartzekodunak. Horiek kitatzean, litekeena da baliabideak gastatu behar izatea; baina ezinezkoa izan ohi da saldoen zenbatekoa eta/edo noiz kitatuko diren zehaztea.
- Pasibo kontingenteak: iraganeko jazoeretatik erator litezkeen obligazioak, etorkizunean obligazio horiek gauzatzea Sozietateak kontrola ezin ditzakeen gertaeren mende dagoenean.



Obligazioa bete beharko dela berau saihestuko dela baino ziurragoa denean, horren zuzkidura Urteko Kontuetan jasotzen da. Pasibo kontingenteak ez dira Urteko Kontuetan jasotzen. Horren ordez, memoriako oharretan horien berri ematen da, ez badira urrunekotzat hartzen.

Zuzkidurak balioztatzeko, oinarritzat hartzen da obligazioa kitatzeko edo transferitzeko behar den zenbatekoaren balioztatzerik onena, jazoeraren eta horren ondorioen informazioa aintzat izanik. Horrez gain, zuzkidurak eguneratzean sortzen diren egokitzapenak finantza-gastu gisa jasotzen dira, gastua egiten den heinean.

k) Sarrerak eta gastuak

Sarrera eta gastuak sorrarazpen irizpidearen arabera egozten dira.

Sarrerak jaso beharreko ordainaren arrazoizko balioarekin kalkulatzen dira, eta emandako ondasunengatik eta egindako zerbitzuengatik jardueraren esparru arruntean kobratu beharreko zenbatekoak dira behin deskontuak kenduta.

Ondasunen arrisku eta mozkinak erosleari eskualdatu direnean erregistratzen dira ondasunen salmentak.

Zerbitzuen prestazioarekin erlazionatuta dauden ohiko salmentak, balantzearen eguneko gauzapen gradua eta transakzioaren emaitza fidagarritasunez estimatu daitekeenean aitortzen dira.

Interesen sarrerak finantza irizpide temporalak jarraituz sortzen dira, kobratzeko dagoen printzipialaren eta interes tasa efektiboaren arabera. Estimatutako bizitza erabilgarrian zehar jaso beharreko etorkizuneko esku diruaren eta liburueta zenbateko garbia berdintzen duen tasa da.

Gastuak galdu irabazi kontu laburtuan adierazten dira era fidagarri batean aktibo baten gutxitzearen ondorioz edo pasibo baten handitzearen ondorioz neurtu daitekeen etorkizuneko mozkinen gutxitzea gertatzen denean. Horrek esan nahi du, gastua eta aktibo baten gutxitzea edo pasibo baten handitzea aldi berean adierazi behar direla.

Gastu baten berehalako aitorpena, aktibo bezala adierazteko beharrezko baldintzak ez betetzeagatik edo ordainketa batek etorkizunean mozkinak sortuko ez dituenean gertatzen da. Era berean, gastua aitortu egiten da pasibo bat sortu denean aktiborik sortu gabe.



I) Diru laguntzak

Diru laguntzen kontabilizaziorako sozietateak hurrengo irizpideak jarraitzen ditu:

Kapitaleko diru laguntza ez itzulgarriak:

Ondare garbian adierazten da zergen efektua kendu eta gero. Horretarako, diru laguntzaren kontzesioaren jakinarazpena behar da eta honetan azaltzen diren erabakiak betetzeko arrazoizko zalantzak ez dagoela estimatu behar da.

Sozietateak alde batetik, aktibo bezala ondasun eta zerbitzuak adierazten ditu, eta bestetik, ondare garbian dagokion handitzea adierazten du. Ondoren, Kapitaleko diru laguntzak emaitzetan egozten dira, diruz lagundutako elementuari aldi horretan egindako amortizazioaren horriduraren proportzioan, edo, dagokionean, besterentzen edo hondatzeagatik balioztatze zuzenketa egiten denean, salbu eta baziideengandik edo jabeengandik jasotakoak badira, horiek zuzenean fondo propioetan erregistratzen baitira, eta ez sarrera gisa.


Ustiapeneko diru laguntzak:

Kontzesioaren ondoren sozietateak betebehar guztiak bete dituela eta zenbatekoaren kobraketan zalantzak ez dagoela estimatzen duenean emaitzetara egotziko dira, ekitaldi bakoitzeko diru laguntzetatik sorturiko sarreren eta diruz lagundutako gastuen korrelazioa ematen dela bermatz.

Jabari publikoko ondasunen emakida:

Jabari publikoko ondasunen emakidaren bidez jasotako ondasunen balio zenbatetsia "Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak" epigrafiari erregistratuta dago. Balio hori emaitzetan egozten da, aipatutako 'Balantze laburtua' delakoaren barnean "Ibilgetu materiala" epigrafean jasota dauden emakida barneko ondasunen amortizazioarekiko proportzioan (5. eta 11. oharrak).





m) Taldeko elkartea

Urteko kontu laburtuen aurkezpenean bi elkartek talde bat osatzen dutela ulertuko da ondorengo baldintzetako bat betetzen badu: Merkataritza kodeko 42. artikuluan araberako kontrolpeko erlazio baten bidez -zuzeneko edo ez- lotuta daudenean edota elkardea batera aritzen diren pertsona fisiko edo juridiko bat edo gehiagoren kontrolpean dagoenean edota akordioengatik edo betebehar estatutarioengatik zuzendaritza bakarren menpean daudenean.

Orokorrean, taldeko elkarteen arteko eragiketak hasierako momentuan arrazoizko balioan adierazten dira. Adostutako prezioa eta arrazoizko balioa bat ez badatoz, hauen arteko diferentzia errealtitate ekonomikoaren arabera adieraziko da. Ondorengo balioztapena dagokion arauen arabera burutzen da.

n) Ingurumenean eragina duten enpresa jarduerak

Ibilgetuan inbertsioak, sozietatearen jarduerak ingurumenean sor dezakeen eraginaren kontrola, ezabatzea edo mugatzea helburu duten instalazio edo tresneriaren eskuraketan sortutako kostuak ibilgetuan egindako inbertsioak direla konsideratzen da.

Ibilgetuaren eskuraketan zerikusirik ez duten eta ingurumenarekin erlazonatuta dauden gainontzeko gastuak, ekitaldiko gastuak dira.

Ekitaldian zehar ingurumen arloan egindako inbertsioak ez dira adierazgarriak izan (16 eta 18.oharra)

o) Aldizkapenengatiko doikuntzak

Sozietatearen balantze laburtuaren pasiboa agertzen diren "Sarrera aurreratuak" hurrengo ekitaldian zehar egingo diren ekitaldiei dagokie eta sozietateak leihatiletan egindako bilketa adierazten dute.



### (5) Ibilgetu materiala

2016 eta 2015 ekitaldietan zehar ibilgetu materialaren kontu desberdinetan gertatu diren mugimenduak ondorengoak dira:

	Lursailak eta eraikinak	Beste Instalazioak eta altzariak	Beste ibilgetua	Bideango ibilgetua eta aurrerapenak	Guztira	-Eurotan-
A) 2015 ekitaldiko hasierako saldoa	24.574.584,03	5.308.602,31	307.445,12	-	30.190.631,46	
Gehikuntzak	16.419,61	152.064,70	0,00	348,68	168.832,99	
B) 2015 ekitaldiko bukaerako saldoa	24.591.003,64	5.460.667,01	307.445,12	348,68	30.359.464,45	
C) 2016 ekitaldiko hasierako saldoa	24.591.003,64	5.460.667,01	307.445,12	348,68	30.359.464,45	
Gehikuntzak	11.580,00	127.646,65	6.944,25	-	146.170,90	
Intsuldaetak		348,68		(348,68)		
D) 2016 ekitaldiko bukaerako saldoa	24.602.583,64	5.588.662,34	314.389,37	-	30.505.635,35	
E) 2015eko hasierako amortizazio metatua	3.385.466,89	2.540.582,85	149.500,73	-	6.075.550,47	
Zuzkidura	491.919,63	334.984,84	185,19	-	827.089,66	
F) 2015eko bukaerako amortizazio metatua	3.877.386,52	2.875.567,69	149.685,92	-	6.902.640,13	
G) 2016ko hasierako amortizazio metatua	3.877.386,52	2.875.567,69	149.685,92	-	6.902.640,13	
Zuzkidura	492.024,65	349.347,85	675,50	-	842.048,00	
H) 2016ko bukaerako amortizazio metatua	4.369.411,17	3.224.915,54	150.361,42	-	7.744.688,13	
2015 ekitaldiko bukaerako netoa	20.713.617,12	2.585.099,32	157.759,20	348,68	23.456.824,32	
2016 ekitaldiko bukaerako netoa	20.233.172,47	2.363.746,80	164.027,95	0,00	22.760.947,22	

Sozietateak, 2008ko ekainaren 17ko Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren lehendakariaren erabakiaren bitartez, 24.422.882,25 euro garbitan baloratuta dauden eta kulturarekin erlazionatutako erabilera edo zerbitzu publikora lotuta dauden ondasunen aprobetxamendu pribatua izan dezan jabari publikoaren emakida eskubidea eman zitzzion 50 urterako (11. Oharra).



**(6) Ibilgetu ukiezina**

2016 eta 2015 ekitaldietan zehar ibilgetu materialaren kontu desberdinetan gertatu diren mugimenduak ondorengoak dira:

	Aplikazio informatikoak	Guztira	-Eurotan-
A) 2015 ekitaldiko hasierako saldoa	3.660,97	3.660,97	
Gehikuntzak	-	-	
Erretroak	-	-	
B) 2015 ekitaldiko bukaerako saldoa	3.660,97	3.660,97	
C) 2016 ekitaldiko hasierako saldoa	3.660,97	3.660,97	
Gehikuntzak	-	-	
Erretroak	-	-	
D) 2016 ekitaldiko bukaerako saldoa	3.660,97	3.660,97	
E) 2015ko hasierako amortizazio metatua	3.660,96	3.660,96	
Zuzkidura	0,01	0,01	
Errefiroak	-	-	
F) 2015ko bukaerako amortizazio metatua	3.660,97	3.660,97	
G) 2016eko hasierako amortizazio metatua	3.660,97	3.660,97	
Zuzkidura	-	-	
Errefiroak	-	-	
H) 2016eko bukaerako amortizazio metatua	3.660,97	3.660,97	
<b>2015 ekitaldiko bukaerako netoa</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	
<b>2016 ekitaldiko bukaerako netoa</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	

**(7) Errentamendu operatiboak**

Sozietaek errentari moduan jarduten duen errentamendu operatiboak ditu, bere jardueraren garapenerako karpa, eraikin, ikus-entzunezko tresna etab.en alokairuengatik, 2016 eta 2015 ekitaldietan 392.461,69€ eta 303.874,80€ suposatu dutelarik.

Aldi berean, errentatzaile moduan jarduten du utxitako errentamendu operatiboen bidez. Horren ondorioz, hirugarrenei antzokiaren eta aretoen erabilpen lagapenagatik, 2016 eta 2015 ekitaldietan 216.946,12€ eta 346.411,36€-ko sarrerak izan ditu. Lagapena jarduera zehatzetarako noizbehinkako alokairuetarako izaten da, sinatutako kontratuak epe laburrean kitatzen direlarik. Era berean, 2014ko ekainaren 6ko dataz esleitu zen Victoria Eugenia Antzokiaren eraikineko kafetegia eta horri lotutako espazioak ustiatzeko kontratua zenbateko hauetan jasotzen da. Honi loturik, aurreko ekitaldietan, Victoria Eugenia Antzokiko bulegoen alokairu kontratua barneratzen zen, 2015eko urrian amaitu zena.



**(8) Epe laburreko aktibo finantzarioak**

2016 eta 2015eko abenduaren 31ko epe laburreko aktibo finantzarioen osotasuna "Kredituak eta kobratzeko beste kontu batzuk" epigrafeari dagokio, jarraian azaltzen den moduan:

Kontzeptua	-Eurotan-	
	Zenbatekoa 2016/12/31	Zenbatekoa 2015/12/31
Salmenta eta zerbitzu prestazioengatik bezeroak	90.180,69	204.696,23
Zordunak	69.250,33	35.345,11
Kontu korrontea loturadun alderdiekin (15. oharra)	460.206,35	417.878,98
Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide	288.207,72	193.188,47
<b>Guztira</b>	<b>907.845,09</b>	<b>851.108,79</b>

Balantzeko "Beste zenbait zordun" epigrafean azaltzen diren beste zenbatekoak, Administrazio Publikoarekin dituen kobratzeko kredituei dagozkie alde batetik (memoria honen 12. oharrean azaltzen delarik) eta diru laguntzengatik kobratzeko dituen zenbatekoei dagozkie beste alde batetik (11. oharrean azaltzen direlarik).

Bezeroei kobratzeko kontuen hondatze balio galeren mugimendua hurrengoak dira:

	2016	2015
Urtarrilaren 1ean	52.269,83	195.218,37
Hondatze balioagatko horridura	10.397,47	3.037,12
Bajan emandako kobratzeko kontu kobraezinak	-	(2.393,03)
Ez erabilitako zenbalekoen aplikazioa	(34.247,96)	(143.592,57)
<b>Abenduaren 31n</b>	<b>28.419,34</b>	<b>52.269,89</b>



**(9) Epe laburreko pasibo finantzarioak**

2016 eta 2015 ekitaldietako epe laburreko pasibo finantzarioen osotasuna "Maileguak eta ordaintzeko beste kontu batzuk" epigrafeari dagokio, jarraian azaltzen den moduan:

Kontzeptua	-Eurotan-	
	Zenbatekoa 2016/12/31	Zenbatekoa 2015/12/31
Jasotako fidantzak	5.497,00	7.384,50
POCTEFA diru-laguntzaren itzulketagatik zorra (13. oharra)	155.305,73	-
